



.....(r)en eskaria i2BASQUE SAREan afiliatzeko

..... jaunak,
 NAN zenbakidunak,
(r)en ordezeko legal gisa, helbide hau
, eta IFK hau
 dituenak, aurrerantzean, *erakunde eskatzailea*.

Oinarria

1. i2BASQUE da I+G+Brako Euskal Herriko komunikazio sare aurreratua, erakundeen eta ikerketa eta goi ikasketa zentroen zerbitzura dago eta funts publikoekin finantzatzen da.
2. i2BASQUE ek erakunde afiliatuei I+G+B jardueretarako datuak igortzeko eta komunikazio zerbitzu aurreratuertarako gaitasun handia eskaintzen die.
3. i2BASQUEek konexioa eskaintzen du RedIRIS Estatuko sarearekin eta horren bidez, ikerketako nazioarteko sareekin (Europako Géant, Iparramerikako Internet2...) eta Internet globalarekin.
4. i2BASQUEek erraztu egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (Saretek) eragileen korporazio sareen interkonexioa eta partehartze aktiboa du hori sustatzen eta garatzen.

Adierazten du

1. *Erakunde eskatzaileak* bere baliabide informatikoak dituela eta antzeko beste erakundeen baliabideekin elkarlotu nahi duela, nola EAEn, hala Estatuan eta beste herrialdeetan.
2. *Erakunde eskatzaileak* i2BASQUEek eskaintzen dituen zerbitzu telematikoak erabili nahi dituela.
3. *Erakunde eskatzaileak* bere nortasun juridikoa duela, izen sozial hau eta xede sozial hau, eta "i2BASQUE Sareko afiliazio politikan" aurreikusitako mailan sartzen dela eta hori kreditatzeko honako agiriak dituela:



.....
.....
.....

Horregatik guztiagatik, *erakunde eskatzaileak* eskatzen du i2BASQUE sareko kide izatea eta i2BASQUE sareko antolakuntza eskeman honako klausula hauen arabera sartzeko prest dagoela adierazten du.

.....(e)n,(e)koren(e)an

UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDE ANDREA.



Klausulak

Bat: Xedea

i2BASQUEek *erakunde eskatzailearen* esku jarriko ditu Zientzi eta Teknologiaren Euskal Sareak bere presentzia puntuetan eskaintzen dituen konexioa eta komunikazio telematikoko zerbitzu aurreratuak.

Bi: Konektibitatea, zerbitzuak eta komunikazio-protokoloak

Erakunde eskatzaileak zerbitzuak funtzionatzeko beharrezko bitarteko tekniko guztiak emango ditu. Eta i2BASQUEeko presentzia puntua izendatzen zaionean, komunikazio lerroa ere *erakunde eskatzaileak* emango du.

Erakunde eskatzaileak i2BASQUEerako sarbidea i2BASQUEeko kideei mugatuko die eta ez dizkie i2BASQUEeko sarbidea eta zerbitzuak utziko baldintza hori betetzen ez dutenei.

i2BASQUE ez da izango *erakunde eskatzaileko* azkeneko erabiltzaileei, sailei edo ikerketa taldeei emandako zerbitzuen arduraduna. *Erakunde eskatzaileak* i2BASQUE erantzukizun orotatik salbuesten du eskainitako zerbitzuen kudeaketan edo eragiketan.

Aukera teknologiko gisa, i2BASQUEek komunikazio protokolo *irekiak* (fabrikatzaile zehatz baten mende ez daudenak) erabiltzearen alde egiten du bere zerbitzuen euskarri izateko. i2BASQUEen afiliatutako erakunde taldeak egonez gero protokolo partikularrak erabiltzea justifikatzen dutenak, i2BASQUEekin lotura duten erakundeekin berariazko akordioak beharko dira protokolo horiei eta horien ondoriozko zerbitzu telematikoei euskarria emateko.

Hiru: Afiliazio politika eta erabilera politika bete

Erakunde eskatzailea “i2BASQUEeko afiliazio politika” betetzeaz arduratuko da. Politika hori I. Eranskinean dago, eskaria egiteko agiri honekin batera eta agiri honen zati banaezina da. *Erakunde eskatzaileak* hitza ematen du berehala adieraziko dizkiola i2BASQUEi estatutu juridikoan egon daitezkeen aldaketak edo beste edonolako aldaketak, bertako afiliazio egoeran aldaketaren bat sortzen badute.

Erakunde eskatzaileak hitza ematen du, halaber, beteko dituela II. Eranskinean datozen etika eta kortesiari buruzko arauak. II. Eranskin hori, “i2BASQUEeko erabilera politika”, eskari honen zati banaezina da ondorio guztietarako, eta arau horiek ez betetzeak i2BASQUEeko zerbitzuak etetea ekar dezake.



Erakunde eskatzaileak behar ez bezala edo onartu ezin den moduan erabiliz gero, i2BASQUEek zerbitzua eten egingo dio erakundeari, edo erakunde horretako zati batzuei, honakoen bidez:

- Zerbitzua behin-behineko edo larrialdian etengo da. Neurri hori hartuko da “i2BASQUEen erabilera politikak” ezartzen dituen terminoak urratu eta sareko baliabideak degradatzen ari badira edo i2BASQUEi mota bateko edo besteko erantzukizuna eragiten badio. Erabaki hori i2BASQUEeko zerbitzu teknikoek hartuko dute. Zerbitzua berriro ezarriko da zerbitzua degradatzen duen zergatia desagertutakoan.
- Zerbitzua behin betiko kendu. Neurri hori hartuko da “i2BASQUEen erabilera politikan” ezarritako erabilera baldintzak behin eta berriro urratzen badira, i2BASQUEeko arduradun teknikoek dagozkien oharrak egin ondoren. Erabaki hori i2BASQUEeko koordinatzaileak hartuko du, i2BASQUEeko batzorde aholkulariaren aldeko txostenaren ondoren. Zerbitzua berriro ezarri ahal izango da erakundeak hartutako neurriek etorkizunean erabilera onargarria bermatzen dutela erabakiz gero.

Lau: *Erakunde eskatzailearen* eta i2BASQUEen arteko komunikazioa

i2BASQUE eta *erakunde eskatzailearen* arteko koordinazioan lotura funtzio egon behar da *erakunde eskatzailean*, bertako erabiltzaileei i2BASQUEeko zerbitzuak erabiltzea erraztuko diena orokorrean. Funtzio hori i2BASQUEekin loturarako pertsona bat edo bi (LP) jarrita zehaztuko da. Loturarako pertsona hor(ri)en izena(k) eta datuak III. Eranskinean daude, eta erakundeak berehala jakinarazi beharko du aldaketa oro.

Erakunde eskatzaileak i2BASQUEi jakinarazi beharra dauka LPren bidez i2BASQUEeko zerbitzu bakoitzeko arduradunen datuak. Era berean, behar diren bitartekoak jarri beharko ditu LP eta zerbitzuetako arduradunek beraien zereginak behar bezala bete ditzaten.

Bost: i2BASQUEeko afiliazioa kudeatu eta tramiteak egin

Erakunde eskatzaileak egin beharko ditu i2BASQUE Sarean afiliatzeko tramiteak eta bere eskaria Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordeari zuzenduko dio.

Aldi berean, eta i2BASQUE bidez, RedIRIS estatuko sarean afiliatzeko eskaria ere egin dezake, sare honetako eta nazioarteko beste I+G+B sareetako zerbitzuak erabiltzeko. Nazioarteko sare horiek RedIRISekin akordioak dituztenak izango dira.

Sei: Afiliatzeko baldintzak aldatu



i2BASQUEek agiri hau aldatu egin dezake, baita honekin lotura duten agiriak ere, egon daitekeen eboluzio teknologiko eta politikora doitzeko. *Erakunde eskatzaileari* aldaketa horien berri emango zaio, baita aldaketetara egokitzeko dauden prozeduren eta epeen berri ere.

Zazpi: Erakunde afiliatu izaera galdu

Erakunde afiliatu izaera galduko da honako arrazoi hauetako edozeinengatik:

1. Erakunde afiliatuaren betebeharrak bete ez direlako. Kasu honetan, zerbitzua kenduko da gutxienez 30 eguneko oharrarekin.
2. Afiliazio baldintzen epea igaro delako, ikerketa jarduera batzuen epearen mende egonez gero edo afiliatzeko baldintzak amaitutakoan.

Erakunde eskatzaileak,

.....



I. Eranskina: i2BASQUE sarean afiliatzeko politika

i2BASQUE sarea Euskal Herrian I+G+B erkidegoaren zerbitzura dagoen sare akademiko bat da, eta Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren jarduera programa bezala sartuta dago AZ-02 kodearekin. i2BASQUE sarea I+G+B laguntzeko azpiegiturako zati da eta Estatuan (RedIRIS) eta Europan (GEANT) dauden antzeko ekimenetara sartzeko bidea da.

Sare honetan afiliatzeko, beharrezkoa da erakunde eskatzaileak kreditatzea Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (SARETEK) eragilea dela, I+G+B programa publikoetan parte hartzea eta horri loturiko ikerlariak izatea.

Afilia daitezkeen erakundeak honako maila hauetan sailkatzen dira:

1. Unibertsitate publikoak eta ofizialki aitortutako unibertsitate pribatuak, EAEn zentro akademikoak dituztenak. Hauek beraien korporazio sareen bidez ikerketa eta irakaskuntza unitateak konektatu ahal izango dituzte ospitaleetan eta adskribatutako zentroetan.
2. Zentro teknologikoak eta Parke teknologikoak.
3. Ikerketa biomedikoa garatzen duten ospitaleak.
4. Nortasun juridiko propioa duten beste erakundeak, irabaz asmorik gabeak eta ikerketa proiektuetan parte hartzen ari direnak finantzazio publikoarekin, nahiz EAEkoak (Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana), Estatukoak (I+G Plan Nazionala) edo Europakoak (EBko programak).

Aurreko erakundeez gain, afiliatzeko aukera izango dute:

1. Finantzazio publikoarekin I+G+B programak kudeatzen dituzten erakundeak.
2. Nortasun juridiko propioa eta irabaz asmorik ez duten erakundeak, erkidego zientifiko-teknikoarentzat eduki digital garrantzitsuak dituztenak eta erkidego horien zerbitzura jarriko dituztenak.
3. Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Planeko proiektuetan edo Estatuko edo nazioarteko antzeko planen proiektuetan parte hartzen duten erakundeak, proiektu horiek garatu bitartean eta garatzeko.
4. Zientzia eta teknologiaren euskal sistemarako interes berezi duten beste erakundeak.

Kasu guzti hauetan i2BASQUEek behar dituen bitarteko teknikoak izan ditzake,



afiliatutako erakundeen arteko trukea ezarritako helburuetara mugatzen dela bermatzeko.



II. Eranskina: i2BASQUE sarea erabiltzeko politika

1. Legezatasuna

i2BASQUEeko zerbitzuak Euskadi Informazioaren Gizartean Planak finantzatzen ditu eta Estatu mailan Ikerketa Zientifikorako, Garapenerako eta Berrikuntza Teknologikorako Plan Nazionalak lagundutako eta finantzatutako baliabideak erabiltzen ditu aldi berean.

Horregatik, eskaera agirian eta horko Eranskinetan ezartzen diren baldintzen mende gelditzen dira, baita une berean ezar daitekeen ordenamendu juridikoaren mende ere.

Erakunde afiliatuek hitza ematen dute ez dutela sustatuko eta praktikatu legez kanpoko praktikarik. Gainera, erakunde afiliatuek honakoak zainduko dituzte bereziki:

- a) Ordena publikoa: ekidin egingo da i2BASQUE indarkeriaren erabilera edo delituzko jardueretan parte hartzea sustatuko duten mezuak igortzeko bide izatea.
- b) Giza duintasuna: bazterkeria mota oro ekidingo da (soziala, erlijiosoa, etnikoa, kulturala, politikoa, sexuala edo ezintasun fisikoagatikoa eta psikikoagatikoa).
- c) Bizitza pribatua: funtsezko eskubideak eta askatasuna zainduko dira bizitza pribatua, datu pertsonalak eta sekretu epistolarra zainduta.
- d) Adin txikikoak: horiek erabiltzea saihestuko da, batez ere helburu sexuarekin, eta zuhurtziazko jarrera izango da haurrentzat kaltegarriak diren edukiak zabaltzean.
- e) Kontsumitzailea: gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuko dira, kontsumitzailea babesteko arauen mende jarrita.

2. Zintzotasuna

Erakunde afiliatuek zuzen erabili beharko dituzte i2BASQUEek emandako baliabide publikoak. Baimendutako langileei bakarrik emango die sareko azpiegiturara sartzeko baimena eta ukatu egingo die sarekoak ez diren pertsonen edo erakundeen.

Baimendutako langileek i2BASQUEeko azpiegiturak eta zerbitzuak jarduera akademikorako eta ikerketarako, garapen eta berrikuntza teknologikorako bakarrik erabiliko dituzte. Baita horiei loturiko zeregin administratiboetarako ere.

Erabiltzaileek modu eraginkorrean erabiliko dute sarea, ahal den neurrian sarearen kongestioa ekiditeko. Inolaz ere ez da onartuko honako helburuak dituzten jarduerak garatzea:

- a) i2BASQUEeko beste erabiltzaileen ohiko dinamika kaltetzen duen



- materiala sortu edo igortzea.
- b) Komunikazio loturak edo sistema informatikoak kongestionatzea.
 - c) Beste erabiltzaileen informazioa deuseztatzea edo aldatzea aurrez hala erabakita.
 - d) Beste erabiltzaileen pribazitatea eta intimitatea haustea.
 - e) Beste erabiltzaileen lana kaltetzea.

Era berean, ezingo dute inondik inora erabili i2BASQUE beraien erakundearekin zerikusirik ez duten helburu pribatu edo pertsonaletarako, helburu ludiko edo komertzialetarako.

3. Konfidentzialtasuna

Sareko ohiko jardueran erabiltzaileek anonimatoari eusteko eskubidea izango dute. Baina i2BASQUEek gomendatzen die erakunde afiliatuei ezar ditzatela sarea erabiltzen ari diren taldeak eta erabiltzaileak identifikatzeko mekanismoak, kasuren batean identifikatuko beharra egonez gero ere.

4. Jabego intelektual eta industrial

Erakunde afiliatuek egileek beraien sormen intelektual eta industrialengatik duten eskubidea aitortuko, errespetatuko eta defendatuko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

5. Erantzukizuna

Erakunde afiliatuek bere erabiltzaileei jakinarazi egingo dizkiete i2BASQUEen helburuak eta agiri honetan dauden erabilera terminoak eta baldintzak. Horiek bete daitezzen zaintzea ere beraien kargu egongo da.



III. Eranskina: i2BASQUE Sarearekin lotzeko pertsona(k) (LP)

(erakunde eskatzaileak bete beharrekoa)

LP 1:

Izena:

Abizenak:

Kargua:

Saila:

Erakundea:

Helbide osoa:

Telefonoa:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

LP 2:

Izena:

Abizenak:

Kargua:

Saila:

Erakundea:

Helbide osoa:

Telefonoa:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

Akordioa sinatu duen bera edo beste bat izan daiteke. Azkeneko kasu honetan, akordioa sinatu duenak eskuordetu beharko du. Beharrezkoa izanez gero, jarri bigarren LP baten izena ere.